

## **ERIZAINZAREN OINARRI TEORIKOAK**

### **I. UNITATE TEMATIKOA: Zainketen jatorria**

#### **Autoebaluaziorako galderak**

**1. Erizaintzaren historiaren definizioa honako hau izan daiteke:**

- a) Erizaintzako zainketen jatorria, horien garapena eta eboluzioa historiako une anitzetan aztertzen duen zientzia.
- b) Giza kulturen eta gizarteen sorrera, garapena eta eboluzioa aztertzen duen zientzia.
- c) Ekialdeko oinarria eta jatorria duen zainketa zientifikoaren multzo berezia aztertzen duen zientzia.
- d) Erizaintzaren historia ezin da definitu zainketak amakotasunean dutelako jatorria eta era estrukturalean bakarrik ikus daitezkeelako.
- e) Emakumeak historian zehar izan duen definizioa eta erizain rolaekin parekatu daitekeena.

**2. Silesek dio zainketak era estrukturalean adieraziz gero, modu osatuena agertuko liguketela. Horretarako landu behar dira:**

- a) Elementu paradigmaticoa, Marko funtzionala eta Unitate funtzionala.
- b) Elementu funtzionala, Marko funtzionala eta Unitate funtzionala.
- c) Elementu funtzionala, Marko paradigmaticoa eta Unitate funtzionala.
- d) Elementu paradigmaticoa, Marko paradigmaticoa eta Unitate paradigmaticoa.
- e) Tribua, kobazuloa, sorgina, aztia, ospitalea, tenplua, apaiza...

**3. Erromatarrek osasunean egindako ekarpen nagusienetakoak hauek dira:**

- a) Beste lurralde batzuek konkistatzen zituzten ahala handik jaso zituzten osasunarekin erlazionatutako hainbat aurrerapen.
- b) Borrokalariak zirenez eta lurrak konkistatzea helburu zuten, medikuntza militarra garatu zuten eta Valetudinaria izeneko kanpaina ospitaleak sortu zituzten.
- c) Baina publikoak nagusitu zituzten higiena praktikak eta masajea modukoak garatuz.
- d) Akueduktuak, ubideak eratu zituzten osasun-publikoan hobekuntzak lortuz.
- e) Erantzun guztiak egiazkoak dira.

**4. Erreformak eragindako iraultza erlijiosoak honako garaia ekarri zuen erizaintzan:**

- a) Amerikako sarraskia gaitz berriak sartu zirelako.
- b) Espainian XIV. mendean zegoen atzerapena.
- c) Erizaintzaren garai beltza deiturikoa.
- d) Erdi aroan V.-XI. Mende tartean eman zen epe iluna.
- e) Europan eta Amerikan erizaintzako eredu berriak sortzea eta hangoa edo hemengoa aukeratzeko zailtasunak izatea, sortzen diren zalantzagatik.

**5. Kristautasunak ekarritako eragin positiboan artean azpimarratu daitezke**

- a) Gaixoa ulertzen hasi zen eta honekin batera mirariak zabaldu zirenez zientzia garatu zen.
- b) Obedientzia osoa proposatzen zenez jakintsuak ematen zituzten zainketak bakarrik burutu ziren eta lan modu honekin izugarrizko osasun lorpenak burutu zirelarik.
- c) Gaixoa ulertzeko era berriak proposatu ziren, zainketen esanahi humanista landuz, hau da, zainketa eta arreta berezia ematen hasi zitzaion gaixoari.
- d) Pasibitatea eta apaltasuna, oinarri zirelako zainketa on gehienak antolatu ziren.
- e) Beharra zutenak eta ezinduek erabili ziren hainbat teknika eta zainketa modu berri garatzeko, erizaintzaren hobekuntza lortuz.

**6. Goi Erdi aroan (IV-XI mendeetan) Feudalismoa garatu zenean, zainketa nagusiak**

- a) Emagalduen eskuetan geratu ziren.
- b) Gurutzadak burutu zirenez, zaldun militarrek hartu zuten erizaintza zainketaren ardura.
- c) Islamismoaren esku garatu ziren eta eurekin batera erizaintza profesionalizatu egin zen.
- d) Lema arima garbia izatea zenez, zainketak jainkoaren esku uzten ziren.
- e) Jaun feudalak sarri borroketara irteten zirenez etxeko emakumea geratzen zen etxearen arduradun eta honekin batera etxean behar ziren osasun zainketak aplikatzen zituen.

**7. Behe erdi aroko orden militarren ezaugarrien artean ez zegoen:**

- a) Gurutzadetan parte hartzen zutenen defentsa egitea.
- b) Erlijioa, zaldun izatea eta karitatea nahasten zituzten.
- c) Ospitaleak sortu zituzten hainbat hirietan.
- d) Orden erlijioso guztiak bezalaxe, beren helburu nagusia liburutegien zainzaileak izatea zen eta kopiatzaile sutuak ziren.
- e) Gizonezkoak eta emakumezkoak hartzen zuen parte ordena militar batzuetan.

**8. Erizaintzaren garai beltza aipatzen denean:**

- a) Erdi aroan eman zen epe ilunarekin parekatu daiteke.
- b) Erreformak sortutako iraultza erlijiosoren ondorioa dela esan dezakegu.
- c) Espainian XIV. mendean zegoen atzerapenari buruz ari gara.
- d) Amerika konkistatu zenean harantz eramandako gaitz kutsakorrek sortutako sarraskia eta zainketak nola eman ez jakiteari buruz ari gara.
- e) Hainbeste erizaintzako eredu egoteak eta aukeratzeko zailtasunak daudelako honek, sortzen duen iluntasuna da.

**9. Florence Nightingale erizaintzan emakume esanguratsua izan zen. Adierazpen hauetatik zein ez dagokio berari:**

- a) Idatzi zuen *Notes of nursing* liburuaren helburu nagusiak honakoak ziren: Gaixoen zainketetan parte hartzen zuten emakumeentzako gida bat idatzi eta aldi berean hau bere heziketa proiektuaren oinarri izan
- b) Zituen estatistika ezaguerak zirela eta, bilera nazional eta internazional askotan informeak azaldu zituen eta hauek eragin handia izan zuten osasun zainketen politikan erabakiak hartzerakoan.
- c) Emakumearen heziketa bultzatu zuen batez ere zainketetara bideratuz hainbat ospitaleko heziketaren oinarria izanez.
- d) Berak zion emakumea bere kasa pentsatzeko gai izan behar zela
- e) Elkarreragintzaren eredia proposatu zuen bertan aplikatzen den metodologia sistematikoa onena kontsideratzen zuelako lehen mailako arazoan konponbidea bilatu ahal izateko.

**10. Espainia Erizaintza unibertsitatean onartu zen Diplomatura moduan**

- a) Gizonezkoen partaidetza erizaintza ikasle gisa onartu zenean.
- b) 1977ko uztailean
- c) 1952ean ATS ikasketak onartu zirenean.
- d) 2008an Gradu ezarri zenean Boloniako hitzarmenarekin
- e) Lehengo eredu kontzeptuala, hau da, Virginia Henderson eredu zabaldurik zenean ospitaleak erizaintzaren berezko jakinduriarekin lanari hasi zirenean
- f) b), c), eta d) erantzunak egiazkoak dira.

**ERANTZUNAK**

- 1. b)
- 2. b)
- 3. e)
- 4. c)
- 5. c)
- 6. e)
- 7. d)
- 8. b)
- 9. e)
- 10. b)